

17 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

UDALTZAINGOAREN ZERBITZU BEREZIAK ESKAINTZEAGATIKO TASAK **ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

i. ORDAINARAZPENAREN HELBURUA

1. artikulua

Ordenantza honen ordainarazpen arautzaileak barne hartzen ditu udaltzaingoak eskainitako zerbitzu bereziak, hurrengo honetarako:

- 1.1. Hiri barrutik ibilgailu astunak gidatu, zaindu eta laguntzea.
- 1.2. Konfiskatutako objektuak erretiratu, garraiatu, zaindu eta jagotea.
- 1.3. Eremuak mugarritzea, trafikoa eten eta erregulatzea.
- 1.4. Izaera bereko beste jarduerak, zerbitzu hori eskaini beharra dagoenean.

II. SUBJEKTU PASIBOAK

2. artikulua

1. Tasei buruzko subjektu pasiboak dira, Ordenantza honetan araututako zerbitzu bereziak eskaintzen direla eta, horiek Udaltzaingoak eskainitakoak izanik, bai pertsona fisikoak, bai juridikoak, bai Bizkaiko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34 artikulua aipatzen dituen entitateak, zergadun diren bezainbatean, baldin eta horrela eskatzen badute edo udalaren zerbitzu edo jarduerengatik onuradun edo afektaturik suertatzen badira, Ordenantza honetan araututa dagoen arabera.

2. Jarduera edo zerbitzu administratiboa subjektu pasiboari afektatzen diola edo horri dagokiola joko da, baldin eta zuzenean edo zeharka berak eragindakoa bada eta bere iharduera eta ez-egiteak direlako arrazoiz Udala behartzen badute iharduera edo zerbitzuen eskaintza ofizioz egitera.

III. ZERGA OINARRI

3. Artikulua.- Oinarri zergagarria, egin edo eskainitako zerbitzu edo jarduerak euki dezakeen kostu errealak edo aurrikusi daitekeenak finkatzen du, eta kontuan hartuko dira zerbitzu edo jardueraren kostu osoaren osaketan eragiten duten gastu zuzen edo zeharkakoak, hor sartzen dira, baita, bai izaera finantzariokoak direnak bai aplikagarriak diren ibilgetuaren amortizazioak bai gainontzekoak, horiek ez baldin badira behintzat kontribuzio berezien bidez ordaindu, eta kontuan harturik halaber, eskainitako zerbitzu edo jardueraren ezaugarriak eta tasa ordaintzeko obligazioa duten subjektuen ahalmena.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako zerbitzuak eskaintzeagatiko kuotak, hurrengo era honetan, izango dira:

TARIFAK

1.- Ibilgailu astunak gidatu, zaindu eta laguntzea, zerbitzu bakoitzeko	57,30
2.- Konfiskatutako objektuak eta merkantziak erretiratu eta garraiatzea, zerbitzu bakoitzeko	57,30
3.- Konfiskatutako objektuak jagon eta zaintzea, egun bakoitzeko	5,30
4.- Eremuak mugarritzea, trafikoa eten eta erregulatzea, zerbitzu bakoitzeko	57,30
5.- Eskainitako beste zerbitzuak	57,30

V. SORTZAPENA

5. Artikulua.- Egitate zergagarria osatzen duen udal iharduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa.

VI. KUDEAKETA, EPEAK ETA ORDAINTEKO MODUA.

6. Artikulua.- Tasen likidazioa eta ordainketa, zerbitzua eskaintzearekin edo udal jarduera egitearekin batera praktikatuko da.

Zerbitzua eskaintzeko eskaria egiten denean, administrazioak likidazioa, eskari hori erregistratzen den momentuan, egin ahal izango du, eta momentu berean, horren ordainketa eskatu, behin-behineko neurri gisa eta behin-betiko kuotaren kontura.

Konfiskatutako objektuak erretiratu, garraiatu, jagon eta zaintzeko zerbitzu bereziak eskaintzen diren kasutan, tasaren likidazioa eta ordainketa, konfiskatutako objektuak itzultzeko une berean, egingo da

7. Artikulua.- Ordenantza honek erabakitzen ez dituen gauza guztietan, Zergen Kudeaketa, Bilketa eta ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorra eta indarrean dauden gainontzeko xedapenak aplikatuko dira.

8. Artikulua.- Zergari buruzko hausteak eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko, 2012 azaroaren 19eko eta 2017ko urriaren 26ko osoko bilkuran.)